



## PRENTSA-OHARRA

Iruñeko Udalak auzo-eztabaidaguneak abiaraziko ditu berriro ere bihar, Milagrosa eta Azpilagañako biztanle, elkarte, erakunde eta kolektiboekin

Edurne Eguino buru izango duen lehen saio honek hasiera emango dio apirilera arte luzatuko den auzo-eztabaidaguneen lehen txandari –2017an guztira hiru txanda egingo dira

Iruñeko Udalak auzo-eztabaidaguneak abiaraziko ditu berriro ere bihar, asteartearekin. Auzo-eztabaidaguneak elkarrizketa-guneak dira, herritarrek beren proposamenak egin ditzaten, auzoko zinegotziengandik eta Udaletik informazioa jaso dezaten, eta haiei kontsultak eta ekarpenak egin diezazkieten. Edurne Eguino zinegotzia Milagrosako zein Azpilagañako biztanle, elkarte, erakunde eta kolektiboekin egingo den topaketan izango da, Milagrosako Civivoxean, 18:30ean.

Astearteko hitzordu honekin hasiko da auzo-eztabaidaguneen beste txanda bat; bigarrena, alegia. 2017ko lehen hiruhilekoan hiriko auzo guztietan egingo dira topaketa horiek. Urtarril, otsail eta martxoko astearte guztietan egingo dira, apirilaren 4ra arte. Guztira, 13 hitzordu. Edonola ere, aurten halako hiru txanda egitea aurreikusten da, 13 auzoetako bakoitzean. Hots, udan izan ezik, auzo-eztabaidaguneraren bat egingo da ia-ia asteartero. Gutxi gorabehera 35, urte osoan zehar.

### **Txanda berriaren egutegia eta zuzeneko emankizunak**

Edonork parte har dezake auzo-eztabaidaguneetan. Gainera, bilerak zuzenean ikusi ahal izango dira, internet bidez, *Pamplona es participación / Iruña partaidetza da* izeneko Youtubeko kanalean. Bideo plataforma digitaletik bertatik zein Udalaren webgunearen ataritik ([www.pamplona.es](http://www.pamplona.es)) sartzten ahal da esteka horretara.

Auzo-eztabaidaguneak Iruñeko Udalak 2016an abiatu zituen elkarrizketa-guneak dira, honako helburu hauekin: herritarrek auzoen kudeaketan era malguago eta irekiagoan parte hartzea eta Iruñeko biztanle guztiek hiriaren gaineko erabakiak hartzeko prozesuetan engaiatzea. Bertan, herritarrek proposamenak, kontsultak eta ekarpenak egin ditzakete, baita udal ordezkariengandik informazioa zuzenean jaso ere. Iaz hamahiru auzo-eztabaidagune egin ziren.



Hitzordu guztiak astearteetan egingo dira, 18:30ean, eta horietako bakoitzean gune horri dagokion auzoko zinegotziak parte hartuko du, udal-teknikari batekin batera. Milagrosa eta Azpilagaña auzoei buruzko biharko topaketaren ondoren, hurrengoa urtarrilaren 17an izango da, Milagrosako Civivoxean baita ere, Javier Leoz zinegotziarekin, Lezkairu eta Santa María la Real auzoei buruz hitz egiteko. Urtarrilaren 24an, Patricia Perales Arrotxapeako auzo-eztabaidagunean izango da, Juslarrocha Civivoxean, eta urtarrilaren 31n, Laura Berro Mendillorriko auzo-eztabaidagunean izango da, Mendillorriko Civivoxean.

Otsailean honako auzo-eztabaidagune hauek egingo dira: otsailaren 7an, Iturramakoa, Iñaki Cabasésekin, Iturramako Civivoxean; otsailaren 14an, Alde Zaharrekoa, Alberto Labargarekin, Kondestable Civivoxean; otsailaren 21ean, Txantreakoa, Joxe Abaurrearekin, Txantreako liburutegian; eta otsailaren 28an, Buztintxurikoa, Mikel Armendárizekin, Buztintxuriko ikastetxe publikoan.

Martxoaren 7an, Etxabakoitzeko auzo-eztabaidagunea egingo da, Armando Cuencarekin, Etxabakoitzeko ikastetxe publikoan; martxoaren 14an, Erripagaña, Beloso eta Bidezarrekoa, Mainer Belokirekin, Elorri ikastetxe publikoan; martxoaren 21ean, Zabalguneeetakoa, Itziar Gómezekin, Zabalguneko Civivoxean; eta martxoaren 28an, Donibane, Ermitagaña eta Mendebaldeakoa, Esther Cremaesekin, José María Huarte ikastetxean. Bigarren txanda honetako auzo-eztabaidaguneak apirilaren 4an amaituko dira, Aritz Romeorekin, Sanduzelaiko Civivoxean. Aste Santuaren ondoren, dena den, txanda berri bat egongo da.

Bestalde, eta auzo-eztabaidaguneen dinamika horretatik kanpo, bihar, asteartearekin, Laura Berro zinegotzia Mendillorriko Civivoxean izango da, 17:00etatik 21:00etara, auzoko biztanleak entzun eta haien iradokizunak jasotzeko.



**2017KO AUZO-EZTABAIDAGUNEAK**

<b>DATA</b>	<b>AUZOA</b>	<b>LEKUA</b>	<b>ORDUA</b>	<b>ZINEGOTZI ARDURADUNA</b>
Urtarrilak	Milagrosa - Azpilagaña	Milagrosako	18:30.	Eduarne Eguino
Urtarrilak	Lezkairu - Santa María la Real	Milagrosako	18:30.	Javier Leoz
Urtarrilak	Arrotxapea	Juslarrotxa Civivoxa	18:30.	Patricia Perales
Urtarrilak	Mendillorri	Mendillorriko	18:30.	Laura Berro
Otsailak 7	Iturrama	Iturramako Civivoxa	18:30.	Iñaki Cabasés
Otsailak	Alde Zaharra	Kondestable	18:30.	Alberto Labarga
Otsailak	Txantrea	Txantreako	18:30.	Joxe Abaurrea
Otsailak	Buztintxuri	Buztintxuri IP	18:30.	Mikel Armendáriz
Martxoak	Etxabakoitz	Etxabakoitzeko IP	18:30.	Armando Cuenca
Martxoak	Erripagaña - Beloso - Bidezar	Elorri IP	18:30.	Maidier Beloki
Martxoak	Zabalguneak	Zabalguneko	18:30.	Itziar Gómez
Martxoak	Donibane - Ermitagaña -	José María Huarte	18:30.	Esther Cremaes
Apirilak 4	Sanduzelai	Sanduzelaiko	18:30.	Aritz Romeo

Iruñean, 2017ko urtarrilaren 9an

